

LANSAREAN APP ABIAN DA EUSKARA HUTSEAN

Lan aukera euskaraz izatea errazten duen aplikazio berria da ● Lan bila ari diren profesionalak eta lana eskaintzen duten enpresei zuzenduriko tresna da

↳ *Begoña Martín*

GASTEIZ – Bai Euskarari Elkartek euskaraz dagoen lan-atari bakarren aplikazioa aurkeztu du: Lansarean App. 4.000 lan-eskaintza, 400 enpresa eta 2.900 erabiltzaile baina gehiago jaso ditu webguneak eta, oraingoan, tresna berriarekin, pauso bat harago eman nahi izan du Bai Euskarari Elkartek, ibilbide profesionala euskaraz garatu nahi duenari eta lana eskaintzen dutenei erraztasunak ematen jarraitzeko.

Langilearen eguna dela eta, pasaden maiatzaren leian, Lansarean App euskarazko lan-atariaren aplikazio berriaren zabalkunde abiaturik zuten. Bai Euskarari Elkartek eskaintzen duen euskara hutsean dagoen lan-atari erreferentea da Lansarean, lan bila ari diren profesionalak eta lana eskaintzen duten enpresei zuzenduriko tresna bat.

BI PUBLIKO Lansarean bi publiko hauei dago zuzendua: alde batetik, enpresa, saltoki eta era guztietako entitateei, lan-eskaintzak zabaldu eta hautaketa-prozesuak arinago kudea ditzaten; eta bestetik, lan bila ari diren pertsonak, euskarazko eskaintza profesionalak modu personalizatu batean jaso eta hobekien egokitzen zaizen lana topa dezaten. Bien kasuetan, Google Play eta App Store-n deskarga dezakete tresna berria, doan.

Lana euskaraz bilatu, lana euskaraz eskaini eta euskaraz lan egin nahi duen komunitateari tresna eta baliabide berriak eskaini nahi zaizkie, haien beharretara eta lan-kudeaketa ohituretara egokiturik. Gaur egun pertsona gehienek aplikazio eta mugikorren bidez eginen dituzte Internet bidezko bilaketak, erosketak, erreserbak, etab. Hori horrela izanik, sakelekoetatik edo tabletetatik lan-eskaintzak euskaraz kudeatzeko aukera eskaintzen du aplikazio berriak.

ZIURTAGIRI BAT BAINO GEHIAGO Bai Euskarari Elkartek proiektua da Lansarean, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzen laguntzeko sorturikoa. Izan ere, gaur egun Bai Euskarari ziurtagiri bat baino askoz gehiago da. Komunitatea sendotzeko ari dira lanean, baliabideak etengabe sortzen eta eguneratzen saiatzen dira... Eta ez hori bakarrik, gero eta eragin handiago hartzen ari diren beste proiektu batzuk ari dira elikatzen: Enpresarean, Lanabes eta Lansarean lan-ataria, besteak beste.

Lansarean lan-atariaren kasuan, aplikazio funtzionala da. Hautagaia izan edo profesionala izan, lan-eskaintzak errazago kudeatzeko eta eraginkorra izateko diseinaturik dago aplikazio berria. Sektore anitzeko lan-eskaintzak jasotzen dituzten atariak, interesen arabera pertsona-



ZER DA LANSAREAN? ESKANTZAK HAUTAGAIAK ESKANTZA SARTU ENPRESA NAIZ HAUTAGAIA NAIZ

Lan eskaintzak

Hauek dira indarrean dauden lan eskaintzak

Arloa

Herrialdea

Eskualdea

Herria

Lan mota

Soldata

Iragazi

Hizkuntzen kaleko erabileraren neurketa-lana. Erref.: 201898

2018-Mai-03

Iraurgi Berritzen / Andoain, Gipuzkoa
Enpresa honek neurketa-lanak egiteko pertsona bat behar du:
<http://www.uroianprest.eus/images/Le...>

Ikusi eskaintza

Ingeniari edo teknikari informatikoa. Erref.: 201894

2018-Mai-03

Iraurgi Berritzen / Aspeida, Gipuzkoa
Enpresa honek ingeniari edo teknikari informatikoa behar du: <http://www.uroianprest.eus/images/Le...>

Ikusi eskaintza

Enplegu eta Etxebizitza teknikari bila EGKn

2018-Mai-03

Lanpostua GASTEIZEN, baina lan-eremu Euskadi osoa izango da. Baita bat betetzeko (5 hilabete...)

Ikusi eskaintza

Administrari lan postua: Zeanuriko Udala

2018-Mai-02

Zeanuriko Udala / Zeanuri, Bizkaia
Hautaketa-prozesua deitzen da, lehiaketa-oposatutako sistema askearen bidez, administrari lan-postua...

Ikusi eskaintza

Trapagarango Udaleko Ogasun eta Ondare Sailean teknikari postua

2018-Mai-02

Trapagarango Udala / Trapagaran, Bizkaia
Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Ogasun eta Ondare Sailean teknikari lanpostu bat erre...

Ikusi eskaintza

Sukaldari lana

2018-Mai-02

Donostia, Gipuzkoa
Jardunaldi osoko sukaldari lana, taberna-jateetxe batean. Orduetegi ona eta soldata ona.

Hauek dira indarrean dauden lan eskaintza batzuk Lansarean webgunean. *Argazkia: DNA*

lizatu daitezkeenak; aplikazioak, gainera, jakinarazpenak programatzeko eta eskaintzak ordenatzeko aukera ematen du; kudeatzeko sistema erraza dauka, eta hautagai-enpresa harremanetan jartzeko mezularitza aukera eskaintzen du.

Horrez gain, erabiltzaileei ibilbide profesionala euskaraz egiten laguntzeko helburuarekin, orientazio zerbitzua eskaintzen du Lansareanek eta formakuntza agendaren berri ematen du. Rober Gutiérrez Bai Euskarari Elkartek zuzendarik nabarmendu duen bezala, "euskara eremu sozio-ekonomikoan txertatzea eta erabiltzea funtsezkoa da egunerokoan normaltasunez aritzeko

Bai Euskarari Elkartek eskaintako euskara hutsean dagoen lan-atari erreferentea da Lansarean

Ibilbide profesionala euskaraz garatu nahi duenari eta lana eskaintzen dutenei erraztasunak ematen dizkiete

eta hizkuntzaren biziberritza. Lan munduan euskara sustatzeko urratsak ematen ari dira, baina erdara da nagusi oraindik ere enpresa eta lantoki gehienetan. Gero eta gehiago dira euskaraz ikasi duten eta trebatu diren pertsonak, belau-naldi berriak prest daude euskaraz lan egiteko, baina lan munduak horretarako aukera gutxi ematen die. Lan arloan euskaraz normaltasunez aritzeko baliabideak sortu eta garatu behar dira. Euskaraz lan egin ahal izateko ezinbesteko baldintza baita, pertsonak eta espazioak euskararekin betetzeko gain, baliabideak eta tresnak euskaraz egotea eta horiek baliatzea". ●

Enpresa eta profesional euskaldunak ezagutzeko erreminta

Lan bila ari diren pertsonen enpresen lan-eskaintzen berri izan eta horietan izena eman dezakete

GASTEIZ – Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek Lansarean proiektua kudeatzen du, alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko. Lan-atariak enpresa eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera errazten dute. Alde batetik, enpresen hautaketa-prozesuak kudeatu

ditzakete, eta eskaintzen dituzten lanpostuetarako hautagaiak aurkitu ahal dituzte. Bestetik, lan bila ari diren pertsonen enpresen lan-eskaintzen berri izan eta horietan izena eman dezakete.

Lansarean erremintak Bai Euskarari eta Enpresarean proiektuak indartu ditu, balio erantsi handiko zerbitzua gehituz eta euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta pertsonen arteko harremana sustatuz. Nola erabil daiteke? Oso erraza da. Lansarean sartu eta alta eman "Enpresa" edo "Hautagai" bezala;

hori egin ostean, enpresa eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera izango dute.

Ziurtagiriaren Elkartek lan mundua euskalduntzeko estrategikoki lanean dihardu 2007tik, Bai Euskarari Ziurtagiria erreminta nagusi delarik. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria sortu zuen 2000. urtean, baina Ziurtagiriaren Elkarteak da agiriaren kudeaketa integralaz arduratzen dena, 2007tik. Bere bitartez alor sozioekonomikoko entitateen arteko elkarlana sustatzen da. Bai Euskara-

ri Ziurtagiria prozesu parte-hartzaile, dinamiko eta planifikatu baten emaitza da eta erabiltzaile guztien ekarpenak jasoz etengabe hobetzen ari da. Urte hauetan Ziurtagiriaren Elkartek proiektua sendotzeko, hobetzeko eta hedatzeko pausoak eman ditu, gizartearentzat egitura erreferentea sortuz.

Hala, proiektu ezberdinak garatzen ditu urtean zehar: Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean eta Lazarraga sariak. 2013an egin zuten elkartearen hausnarketa estrategikoa eta horri esker, elkartearen egi-

tasmoa sendotu eta euskararen normalizazioaren bidean urratsak egiten jarraituko du. Helburua adostu dute: "Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea". Espazioak euskalduntzea estrategikoa da hizkuntza batean normaltasunez bizi ahal izateko. Horregatik, garrantzia du alor sozioekonomikoaren espazioetan euskarari lekua egiteko. Lanean ematen dugun denboragatik edota produktutik eta zerbitzuen kontsumitzaile izateagatik, eragina du lan munduak gure bizimoduaren eta hizkuntza jardueraren. –B.M.